


Hameka

«Anitzetan esana zien Isidrok, bere hiru lagunei, hura ez zela pertsona batendako bizimodu egokia. Hobe zutela baserriren batean mutil aritu, lanean, astero bizitza arrisku gorri jarri baino. Aspaldi batean, Isidro denetan bizkorrena izana bazen ere, lapurreta bat burutzeko tenorean, azken bolada hartan apenas zen trebe zerbait antolatzeko eta beste batek proposaturik, ebasgo batean parte hartu behar bazuen, herabe eta lotsati aritzen zen; berak sosa ebatsi bidenabar, berari bizitza ebatsiko ote zioten beldurrez edo.»

Urtero gisa, Iruñeko Udalak egile berrientzako euskarazko literatur lehiaketa antolatu du amaitu berri den urtean **Maria Castilok** irabazi du poesia atala *Txantxikonea* lanarekin, eta **Esteban Arozenak** bertso paperena *Helduen kontraesanak* lanekin **Iñaki Irisarrik** narrazio saria jaso du *Hameka* ipuinari esker, eta **Imanol Larunbe** gailendu da komikien atalean **Azken biak barkatu ama**-ra ekarri ditugu.



mikel lizarralde

Bide bitxia egin du Iñaki Irisarri iruindarrak Iruñeko Udaleko narrazio lehiaketan gailendu arte. 29 urte izanik, orain dela gutxi arte ez du deus idatzi, eta lagunek bultzatuta hartu zuen sari-kerara aurkezteko erabakia. Euskaldun berria, orain dela gutxi arte euskara ikasten aritu da AEK-n, eta hortxe ohar-tu zen, hain zuzen ere, literaturarako zuen dohainaz: «Klasean idazlan batzuk egiten genituen, eta behin baino gehiagotan aipatu zidaten ondo idazten nuela», azaldu ditu Iñakik.

Iruñeko Udaleko saria eskuratu aurretik, AEK-k antolatutako lehiaketa bat irabazi zuen Basajauni buruzko lan batekin. Iñakik azaldu digunez, antzinako istorioak kontatzea du gustuko, eta orain arteko lan guztietan atzera begiratu du: «Beharbada, gaur egun duguna ez zait askorik gustatzen, eta nahiago dut

Imanol Larunbe

Imanol Larunbe iruindarra da, eta Iruñeko Egile Berrien komiki saileko sari nagusia irabazi du. Pozik da oso. Komiki irakurle amorratua da, eta bere zaletasunaren nondik norakoak


azaltzeko prest agertu zaigu. Marrazkilaria ere bada; komikiak, aldiz, lehen aldiz egin ditu lehiaketa horretarako. Lehen aldia izateaz gain, bat-batekoa ere izan dela aitortu du Imanolek, laguntza izan baitu bere lana aurkezteko orduan. «Betidanik gustatu zaizkit komikiak. Irakurtzea batez ere. Dena den, marrazkilaritza nire zaletasunetako bat zela bazekien nire neska-lagunak, eta hark bultzatuta hartu nuen parte. Sarri askotan ekin diot istorio bat marrazteari, baina aspertuta bukatu gabe utzi izan dut beti», dio.

Apirilean baldintzak jaso eta urrian bukatu zuen lana, epea amaitzen zeneko bezperan. «Oso motela naiz; gainera, lantegi batean egiten dut lan eta denbora nue-

Iñaki Irisarri

aspaldiko kontuetan murgildu». *Hameka* ere, Iruñeko Udaleko saria eman dion ipuina, iraganean dago kokatua, XIX. mendeko Nafarroan, alegia. Garai hartan Nafarroan ziren bidelapurrei buruzko liburu bat irakurria zuen Iñakik, eta horrek ipuin bat idazteko bidea eman zion. Izan ere, *Hameka*-k ebasle talde baten pasadizoak kontatzen ditu: nola haietako bategen bizimodua aldatu nahi duen, baina azkenean nola lapurreta batean hiltzen duten. Hortik aurrera taldekideek hausnarketa ugari egingo dute. «Harrituta gelditu nintzen jakitean hain iragan gertuan bazirela bidelapurrak Nafarroan. Badirudi haiek beste toki batzuetan baino ez direla existitu». Gaur egungo gaia ez zenez, pixka bat dokumentatu behar izan du Iñakik; «batez ere hanka ez sartzeko edo garai hartan erabiltzen ez zen hitzik ez erabiltzeko».

Nahiz eta idaztea gustuko duen, eguneroko sosa etxera eramateko, literaturarekin zerikusi gutxi duen lan batean aritzen da Iñaki, Volkswagen-en. Nola-



nahi ere, auto artean lan egitean inspirazioa iristen zaiola aitortu digu idazle gazteak. «Volkswagenen lanean etortzen zaizkit ideiak. Nola ez den ahalegin intelektualik egin behar, zerbait bururatu eta gorde egiten dut. Gero, etxera iristen, gauean, ideia hori garatzen dut».

Saria jaso ondoren, idazten jarraituko duela ziurtatu digu Iñakik, eta dagoeneko hasia da beste zenbait lan egiten.

nean marrazten dut soilik. Triste nagoenean ezin dut marraztu. Ongi izan behar dut umorez. Horregatik, akaso gaur hiru orrialde bete ditzaket eta beste bi hilabetetan ez dut ezer egiten», aitortu du Imanolek.

Izenbururik ez du lanak, baina estiloa oso klasikoa dela gaineratu du. «Mortadelo eta Filemonen antzekoak dira nire binetak. Marrazkiak agian ez, baina formatua horrelakoa da».

Zinema eta musika izugarri gustatzen omen zaizkio, «baina diru asko kostatzen da horrelakoak egitea»; beraz, komikiak egiteari ekin zion. «Betidanik zinema, musika gustatu izan zait, baina arte horiek egiteko beti diru asko behar duzu. Komiki bat egiteko, berriz, papera eta lapitza besterik ez da behar. Horregatik, horrelako zerbait egitea erabaki nuen, Cohen anaien zinema ardatz hartuta gisa bikote bat aukeratu nuen, poli-ziengandik ihesi dabilen bikote bat. Taberna batera heltzen da bikotea, eta bertan sortutako iskanbila kontatzen du komikiak. Algararako komikia egin du komikilari iruindarrak: «Benoa, hori zen nire asmoa behintzat».



Etorkizunari begira jarri dugu Imanol, eta zaletasunean oinarritutako komikilari gisa ikusten du bere burua. «Ezinezkoa da hortik bizitzea. Gainera, ez nuke nahi. Irakurri izan ditut liburu eta artikuluak marrazkilarien bizimoduaren inguruan, eta ez dut us-te oso bizitza erosoa denik», esan du. Dena den, lehiaketetara aurkezteko animoz jarraitzen du Imanolek, «orain gehiago gainera».